



SORTZAILEAK: TWITCH

SORTZAILEAK: TWITCH

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei Twitchen sortzen dituzten edukiei buruz galdetu diegu, zehazki. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorrean eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkitzen dira 2021eko maiatzaren 3tik 8ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa Twitch bezalako sare sozialean sortzeko duten ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 858 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

4. TWITCH

Inkestatuen bostena pasatxok, % 23,5ek, du Twitcheko kontua (201 pertsonak guztira).


1. Irudia – Baduzu Twitcheko konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Kontua duten horien artean, ohikoena den jarduera beste erabiltzaileek igotako edukiak ikustea da (% 50,5ek astean baino gehiagotan egiten du). % 32,2k hilean baino edo sarriago idazten ditu iruzkinak eta aipamenak bideoetan, eta % 27,8 besteen kanaletara harpidetzen da hilean baino edo sarriago.


2. Irudia – Zein maiztasunarekin egiten diren ekintza batzuk Twitchen



Iturria: Ikusiker Applika +

Kontua duten 201 pertsonen artean, ia hamarretik bederatzik ez du inoiz zuzenkorik egin Twitchen. Hau da, inkesta erantzun duten pertsona guztien artean 21ek egin dute noizbait zuzeneko bat plataforma honetan.


3. Irudia – Egin al duzu inoiz zuzenkorik Twitchen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitcherako sortzen diren bideo eta eduki gehienak bideo-jokoekin lotuta daude (% 74,2) eta beste % 16,1 “just chatting” kategorian sartzen dira.


4. Irudia – Twitcherako sortzen dituzun bideo eta eduki horien artean, zein da gehien sortzen duzun eduki mota?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, hamarretik zortzik beti gaztelera sortzen ditu edukiak, eta beste % 10,7k euskara eta gaztelera ez den beste hizkuntza batean gehiago.

5. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua du euskarak Twitcherako sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Sortzaileak: Twitch". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 26. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>